

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2 h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ARARTEKOAREN 2013KO MARTXOAREN 4KO EBAZPENA

Honen bidez, genero-indarkeria jasanda hil ziren bi emakumeren kasuan abiarazitako ofiziozko bi espediente amaitzen dira.

Ondorioak:

1. Arartekoak uste du Ertzaintzak, bi kasu hauetan, arlo honetan ezarritako protokoloen arabera **1** duela; baina, hala eta guztiz ere, abagune egokia izan litekeela hobetu litezkeen arloak identifikatzen saiatzeko. **2**, zehatz-mehatz aztertu beharko lirateke beste kasu batzuetan egindako jarduketa publikoak ere, betiere, jarduketa horien ebaluazioak izan litzakeen **3** zuzentzeko.
2. Kasu hauek izan duten zorigaitzoko amaiera ikusirik, baieztza dezakegu arriskuaren aurreikuspena eta biktimak babesteko **4** ziren neurriak ez zirela izan nahikoak emakumeen heriotza eragin zuen eraso bortitzaren aurrean. Horregatik, garrantzizkotzat jotzen dugu sistema berrikustea, lorturiko esperientzia kontuan hartuta, aipaturiko tresnak modu eraginkorrean hobetzeko, etorkizunean izan litezkeen kasuetarako.
3. Bestalde, uste dugu ezar litezkeela ikertzeko beste bide batzuk ere, ertzainek erasotzaileari eta biktimari egiten dieten elkarrizketaz harago, portaera bortitzak eta erasotzailearen asmoak **5** handiagoarekin aurreikusteko. Hain zuzen ere, tresna psikologiko aurreratuenei buruz ari gara, eta, **6**, adituengana jotzeaz, teknika espezifikoak aplikatzen baitituzte aurreikus litezkeen erasotzailearen portaerak **7** handiagoz ezagutzeko.
4. Uste dugu, oro har, arrisku handiko edo oso handiko egoera bat detektatzen den kasuetan, biktimaren **8**, beharrezko babes-neurriak ezartzeko orduan, lan eraginkorragoa egin behar dela biktima kontzientziatzeko. Gainera, beharrezkoa izanez gero, genero-indarkeria jasaten duten emakumeei arreta emateko, beste zerbitzu publiko batzuen babesa eta lankidetzak eskatu behar da biktimari ematen zaion komunitate-babesa indartzeko.
5. Genero-indarkeria jasaten duten biktimei arreta emateko erakunde **9** jakin egin behar dute zein diren portaera-eredu komunak indarkeria matxistaren ziklo prototipikoaren faseetan. Era berean, biktima ohartarazi eta kontzientziatu egin behar dute, esanez oso zirkulu txarra sortzen dela erasotzailea barkatuta, itxuraz damutu egin delako eta harekin adiskidetu nahi duelako. Jarrera horrekin, eskuarki, areagotu egiten da emakumearentzako arriskua, bere burua behartuta sentitzen baitu **10** kentzera edo bere burua defendatzeko jardunetan atzera egitera. Fase horren ondoren, indarkeriaren beste **11** bat egoten da, eta orduan, jadanik, sistemak ez du emakumea babesten, bere **12** babes horri uko egin diolako.
6. Ohartzen gara polizia-neurriekin ez direla amaitzen genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arrisku-egoerak, eta neurri horiek bakarrik ezin dietela aurre egin halako egoerei. Alde horretatik, **13** behar dugu justizia-sistema funtsezkoa dela bereziki genero-indarkeria jasaten duten emakumeei benetako babesa emateko.
7. Erakunde honek uste du aztertutako kasuek **14** jartzen dutela zer garrantzitsua den koordinazio judicial-poliziala areagotzeko lan egitea. Horiek horrela, gure iritziz, beharrezkoa da, **15**, jarraipena egiteko eta kasu konkretuetan arlo judicial-polizialak koordinaturik jarduteko protokolo berriak sortzea edo lehendik daudenak areagotzea, kontuan hartuta biktimen babesa eskumen hertsiki polizialaren esparruaz harago doala.
8. Beste ildo batean, proposa da, gainera, koordinaziorako lurralde-organoen alde egitea, kasu jakin batzuen **16** egin dezaten, genero-indarkerian esku hartzeko eskumena duten erakunde guztiek parte hartuta (polizia-arreta, justizia-sistema, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta genero-indarkeria jasaten duten biktimei arreta emateko zerbitzuak). Gure iritziz, etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaie laguntza hobetzeko, Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan jorratu eta sustatu behar da gaia.

9. Azkenik, uste dugu **17** gabe, modu irekian eta zintzo berrikusi eta ebaluatu behar direla emaitza larriak izan dituzten edo heriotza eragin duten genero-indarkeriaren kasuak tratatzeko emandako pauso guztiak. Kasu horien osteko ebaluazioa, biktimari arreta motaren bat eman dioten erakunde guztien parte-hartzearekin eginikoa, akatsak **18** abagune egokia izan daiteke, eta hobetzeko aukera ezin hobea, arbuia ezin duguna. Etxeko tratatu txar eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko, uste dugu Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea dela esparru egokia ebaluazioak sustatzeko.

ARARTEKOA. 2013ko martxoa. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- | | | |
|--|---|---|
| 1. a) erabaki
b) jardun
c) agindu
d) izapidetu | 2. a) Berriz
b) Harrezkero
c) Horretarako
d) Hurrenez hurren | 3. a) ahuleziak
b) barrenak
c) etekinak
d) zantzuak |
| 4. a) abiarazi
b) txertatu
c) ustiatu
d) kontrajarri | 5. a) antzinakotasun
b) ahalmen
c) ardura
d) fidagarritasun | 6. a) antza denez
b) orotara
c) hala badagokio
d) haatik |
| 7. a) ahalmen
b) zentzu
c) adeitasun
d) egiazkotasun | 8. a) ziurtasunarekin
b) doluarekin
c) bakardadearekin
d) onespenearekin | 9. a) jakitunek
b) eskudunek
c) jarraitzaileek
d) menpekoek |
| 10. a) zigorra
b) mehatxua
c) salaketa
d) eragiketa | 11. a) agerraldi
b) eredu
c) gertutasun
d) topaketa | 12. a) halabeharrez
b) iritiz
c) borondatez
d) begirunez |
| 13. a) jasan
b) nabarmendu
c) azpisailkatu
d) zuzendu | 14. a) indarrean
b) oholean
c) idatziz
d) agerian | 15. a) batez beste
b) orobat
c) izan ere
d) hala ere |
| 16. a) jarraipena
b) ordezkapena
c) hastapena
d) luzapena | 17. a) soberakinik
b) frogarik
c) aurreiritzirik
d) esamesik | 18. a) eraldatzeko
b) desegiteko
c) errugabetzeko
d) hautemateko |

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BUNDESLIGA ETA EKONOMIA

Steria Mummert aholkularitza-enpresak egin berri duen ikerketa batek oso emaitza harrigarria utzi du: Alemanian gero eta enpresa gehiagok Bundesligak erabiltzen dituen irizpideak kopiatzen ditu, arrakasta lortu nahian. Deutsche Welle berri-agentziak askotan lotu izan ditu ekonomia eta futbola azken bolada honetan, Alemania kirol horretan gailurrera iristen ari denean, -dagoeneko iritsita ez badago-, eta kontuan hartuta iazko Txapeldunen Ligako finalera herrialdeko bi talde iritsi zirela. Thomas Dorow Steria Mummert etxeko ikerlariak uste du bidezkoa dela enpresa batzuek futbol-klubak erreferentziatzat hartzea, «Bundesligako klubak ere ekonomian eragina duten enpresak dira eta. Horregatik, logikoa da futboleko ondo funtzionatzen duten mekanismoak erreparatzea, arrakasta nondik nora datorkien ulertzeko. Berdin-berdin da futbola, botilak, etxeak edo beste edozer ekoiztea, produktu horren atzean beti gizakiak baitaude».

Ikerketak alde demografikoari eman dio lehentasuna: langile berria nola kontratatzen duten, langileen enpresarekiko lotura epe luzean, eta langileen trebakuntza eta sustapena. Enpresetan bildutako informazioa Bundesligan jasotakoarekin alderatu zuten, eta, futbola eredu moduan hartuta, zertan hobe dezaketean ikusi zuten enpresariak. Dorowen iritziz, talentu berrien bila, esaterako, klubak auzoetako zelaietara joaten dira, herri-mailako txapelketetara. Enpresek ere gauza bera egin beharko lukete: «Enpresak kalitate handiko pertsona berriekin bere burua indartu nahi badu, pertsona horiek dauden lekuetara joan beharko du, hautagaiak enpresara etorri arte zain egon beharrean». Harrobia zaintzea oso garrantzitsua izan arren, ez omen da nahikoa. «Enpresek langile funtsezkoenak zein diren ikusi behar dute, eta, garaiz, horiei kontratuak luzatu eta lan-baldintzak hobetu, motibatuta eta konprometituta lanean jarrai dezaten, kanpora alde egiteko tentazioari eutsita. Horixe egiten du futbolak bere izarrekin», dio Dorowek.

Ikerlariaren ustez, ez da zuzena futbola ikuskizun modu hutsean aztertzea, negozio bat ere badelako. Langileen arteko elkartasuna nola suspertu ikasi nahi dute futbol-klubetatik, esaterako. «Negozioari erreparatuta, futbolaren arrakasta ulertzen laguntzen duten printzipioak agerian geratzen dira. Esaterako, kolektibo baten parte sentitzea, gauzak talde moduan egitearen garrantzia, pertsona bakoitzak bere lan eta aukerak taldearen zerbitzura ipintzea». Motibazioari ere sekulako garrantzia ematen dio Dorow ikerlariak: «Futboleko taldea motibatuta ez dagoenean, alde egin behar duen lehenengoa motibatzailea da, entrenatzailea, eta lekua egiten zaio beste entrenatzaile bati taldearen animoak gora egin eta arrakastaren bidea berriz aurkitzeko».

Dorowek dio dirua, fitxaketak egitea, ez dela nahikoa emaitza onak lortzeko. «Horregatik, futbolari berriak erosteko dirua inbertitzeaz gain, etorkizunean izar izango direnak trebatzeko ere inbertitzen da. Alemaniako enpresen artean ere ikusi dugu trebakuntza-aukera gehien eskaintzen dituzten konpainiak direla kalitateko langileak kontratatzeko aukera gehien dituztenak».

Emmanuel Hembert A.T. Kearny nazioarteko konpainiako adituak urteak daramatza Alemaniako futbolak beste guztiak atzean utziko dituela esaten. Dortmund eta Bayern iazko Txapeldunen Ligako finalera iritsi izanak bere tesia baieztatzen duela dirudi. Hembertek Bundesligaren errentagarritasuna aipatzen du bilakaera hori azaltzeko: «Alemaniako liga baitzen Europa osoan irabaziak ematen zituen bakarra». Adituak nabarmentzen du Merkelen herrialdean sekulako lana egin zela klubetako finantzak orekatzeko.

Deloitte etxeak urtarrean aurkeztu zuen *Football Money League* izenburuko ikerlanean, munduko hoguei klub aberatsenen zerrendan ageri dira Ingalaterrako *Premier* indartsuko zazpi talde, Italiako bost, Alemaniako lau eta Espainiako eta Frantziako estatuetako bina. Txosten hori aurkeztu zenean Deutsche Welle agentziako Daniel Martinezek idatzi zuenez, «Espainiako eta Ingalaterrako taldeek aurkeztu dituzten egoera-balantzeak positiboak dira, neurri handi batean, telebista-eskubideen salmentak ematen dizkien baliabideei esker, eta hori ez da Alemanian horrela gertatzen». Martinezek nabarmendu zuenez, Bundesligako taldeek beste iturri batzuk ere baliatzen dituzte dirua lortzeko, telebistaren zain egon beharrean. Hembertek uste du zaila izango dela besteek Alemaniako futbolaren eredia kopiatzea. Alde batetik, finantzak zaintzeko gogo handirik ez dutelako, eta, batez ere, telebista-eskubideak beste era batera banatzeko prest ez daudelako.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zer dio Steria Mummert enpresak egindako ikerketatik ateratako emaitzak?

- a) Alemaniako enpresari entzutetsuenek aintzat hartzen dituztela Alemaniako kirol taldeek dirua kudeatzeko duten sistema.
- b) Urtero Bundesligan gailurra jotzen duen taldearen kudeatze-sistema jarraibidea dela herrialdeko enpresa askorentzat.
- c) Arrakasta lortze aldera, Alemaniako enpresek bertako futbol-ligako en irizpideak dituztela eredu.

20. Zer da zilegi Thomas Dorowen ustez?

- a) Goia jotzeko, herrialdeko enpresak Bundesligako klubak arrakastaz baliatzea.
- b) Enpresentzat futbol-klubak jarraibide izatea, ekonomia-eragileak baitira.
- c) Elkar hobeto ulertu nahian, enpresek futbol-taldeak informazioa erabiltzea.

21. Zer izan dute kontuan ikerketan?

- a) Batez ere herrialdearen datu demografikoak.
- b) Enpresetan zein futbol taldeetan bildutako datuak erkatuta ateratakoak.
- c) Enpresetako langileen arteko harremanak.

22. Zer egin beharko lukete enpresek, Dorowen iritziz?

- a) Klubak bideari jarraituz, kalera atera.
- b) Kalitateko beharginak herritar xumeen artean bilatu.
- c) Hautagaiak enpresara etorri arte begira egon.

23. Zer dio Dorowek motibazioaz?

- a) Motibazioaren arrakastaren funtsean ez dagoela taldekideen arteko harremana.
- b) Motibazio-eragileak ikuskizunean eragin dezakeela, eta horren ondorioz negozioan ere bai.
- c) Taldean eragitea gidariaren ardura dela hein handi batean.

24. Zer litzateke onena etorkizunari begira, Dorowen ustez?

- a) Jende berria kontratatzeaz gain, kontratatutakoa gaitzea.
- b) Fitxaketaren bat egiteko orduan, eskolatu gabek ez onartzea.
- c) Erosketa probetxugarria egingo bada, egiten diren inbertsioetan erne ibiltzea.

25. Zer esaten da testuan Emmanuel Hemberten tesiaz?

- a) Merkelek finantzatutako ikerketetan, argi ikusten dela besteen aldean Alemaniako futbolak duen errentagarritasuna.
- b) Lan horretan islatuta geratu zela Alemaniako futbolaren errentagarritasuna.
- c) Alemaniako bi talde entzutetsuenak Txapeldunen Ligako finalera heltzea erdietsi izanak izugarritzko garrantzia izan zuela bere tesia idazteko orduan.

26. Zer zioen Deloitte etxeak egindako txostenak?

- a) Munduko hogeitaldetik onenen artean Espainiako eta Frantziako estatuetako bi zeudela.
- b) Espainiako eta Ingalaterrako gobernuen irabazien artean, telebista-erakundeak dagozkienek ahalbidetzen dutela egoera-balantze positiboa.
- c) Espainian ez bezala, Alemanian beste bitarteko batzuk erabili direla aldeko emaitzak lortzeko.

27. Nola ikusten du Hembertek etorkizuna?

- a) Bundesligatik kanpo nahiko ilun, ez baitago bertako eredu jarraitzeko asmorik.
- b) Alemaniatik kanpo beltz, ez baitute eredu jarraitzeko bitartekorik.
- c) Finantza-erakundeak zaintzeko gogoia erakutsiz gero, itxaropentsu.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

HAU DUK EUSKAL UMOREA!

Bertsolaritza ardatz hartuta, behaketa eta galdeketa bidez jaso du euskaldunon barreari buruzko informazioa Eric Dicharry ikertzaile eta sortzaile lapurtarrak. Jasotakoa *Le rire des basques* liburuan argitaratu du.

Zeintzuk dira irriaren erreferentziak? Zertaz egiten dute irri euskaldunek? Zeintzuk dira irriaren fabrikazioaren sekretuak? Nola aritzen da bertsolaria jendeari irria sortzeko? Zeintzuk dira irriaren mugak? Galdera horiek guztiak burmuinean izanda, euskal barreari buruzko ikerketa egin du Eric Dicharry-k (1969, Baiona), Barandiaran Fundazioan lortu duen beka bati esker. Ikerketak utzitakotik, ideia nagusia da euskaldunok badugula umorea eta, horrela, gure umoreari buruzko aurreiritziak ezabatu nahi izan ditu. **28** Liburua frantsesez argitaratuta dago, baina landa-lanean burututako elkarrizketak euskaraz izan direnez, jatorrizko bertsoan utzi ditu eta aurkezten diren bertso guztiak ere euskaraz daude. **29**

Ibilbide antropologikoa egin du euskal Iparraldean zein Hegoaldean euskaldunon barreaz datuak jasotzeko eta informazioa lortzeko. «Irrien gibelean ibili naiz Saran, Uztaritzen, Baionan, Donostian edota Bilbon» kontatzen du. Bertso saioetan parte hartu du eta saio bakoitzean irriaren zain egon da, barrearen iturria zein den ikertuz. **30** Beraz, bertsolaritzan zentratutako euskal barrea landu du bereziki baionarrak. «Umoreak politikarekin harreman estua du eta bertsolariek errealitatea eta fikzioa nahasten dituzte barrea eragiteko», gehitzen du. Umorearen eta bertsolaritzaren artean harreman estua dagoela uste du. «Bertsolarien figura umoreari esker definitzen da eta jendea irri egiteko biltzen da eurak ikustera».

Horrez gain, umorean eragiten duen beste faktore bat gaurkotasuna da. **31** Hegoaldeko umorea Espainiako gaurkotasunari lotuta dago eta, aldiz, Iparraldekoa Frantziakoari. Horregatik, argi dio umorea egoera politikoaren arabera aldatzen dela: «Orain bake prozesuan sartu

garenez, uste dut umorea ere desberdina izango dela». Horrenbestez, jakin eta ezagutu egin behar da umorea izateko, alegia, ezjakintasunarekin ezin dela umorerik izan, umorea eta kultur ezagutza batera baitoaz.

Umorea ulertzeko hausnarketa eta interpretazioa ezinbestekoak dira. **32** Horren atzetik, ulermen linguistikoa eta kulturala behar da, «erreferentziak ez badituzu menperatzen, ez dituzu ulertzen, eta ez baduzu *kaptatzen*, ez duzu irri eginen». Horregatik, testuinguru soziala ezagutu egin behar da –bertan politika eta ekonomia sartuta– umorea izateko, baita gizarte horretako esanahi kulturalak ere.

Ikergai honetan ideologiak biziki rol garrantzitsua du egilearen iritzian («ez dugu irri eginen utopia partekatzen ez badugu»). **33** Lana egiten jardun duen bitartean, irri egiteaz gain, liburuan argitaratutako ondorioak atera ditu eta, pertsonalki, hemendik aurrerako ikerlanak umorearekin lotuko dituela jakiteko balio izan dio.

Buruan bueltaka izan dituen galderei erantzuna bilatuta, Barandiaran Fundazioak ikerketa egiteko utzi dion askatasuna azpimarratu nahi izan du: **34** Hori batez ere lengoaiaren erabilerari dagokionez dio, «diktadura isiltasunarekin badoa demokrazia elearekin doalako». Horregatik, dio auto zentsura dagoenean demokraziari ez zaiola oparirik egiten. Izan ere, elea urrezko lengoaia da eta, askotan, «olerkiaren libertatea falta da gizartean», bertsolariek duten libertate hori.

UNDURRAGA, Ane. Ortzadar, 2013ko ekainaren 15a.
Egokitua.

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. «Lanean hasten zarenean zeure buruarekin hizketan hasten zara eta hor sar daiteke auto zentsura, demokrazian zentsura egon ez arren, norberarena delako handiagoa».
- B. «Ezin duzu irri egin berriak ez badituzu ezagutzen, egoera politikoa ez baduzu menperatzen ez duzulako fitsik konprenituko».
- C. Ibilbide antropologikoko lehen urratsak Zuberoako maskaradak ikertzen hasi zenean egin zituen Eric Dicharryk. Gero, bertso-eskoletan bertsoak irakasteko bidea, bertso-hezkuntza aztertzen hasi zen.
- D. Izan ere, *Le rire des basques* liburuan sei orrialde erabili ditu egileak aurre suposizio horiek gezurtatzeko: «Erdaldunek pentsatzen baitute guk ez dugula umorerik».
- E. «Lehendabizi hizkuntza ulertu behar duzu eta gero adostasuna behar duzu, talde politiko bateko zein besteko militanteen umorea ez delako bera izanen».
- F. Behaketa hori izan da ikerlana egiteko erabilitako teknika bat eta, bestea, elkarrizketa izan da.
- G. Izan ere, norberaren utopia ez bada partekatzen, alegia, mundua behatzeko dugun ikuspegia ez badugu partekatzen, jendeak ez du gauza berberetz barre egiten.
- H. «Liburua elebiduna dela esan daiteke, azken finean zubiak eraikitzeke lana da», baieztatzen du.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak							

Soberakoa	
-----------	--

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Krisia dela eta, udalak hainbat murrizketa egin behar izan ditu estali gabeko igerilekuan: uda honetan hilabete gutxiagoz eta egunean ordu gutxiagoz egongo da zabalik, aurreikusitako obra guztiak ezin izan dira aurten egin... Eta, gainera, kuota igo behar izan du.
- Kirol Arloko arduraduna zarenez, idatz iezaiezu gutun bat igerilekuko erabiltzaileei horren guztiaren berri emateko.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazu iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazu ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Datorren ikasturtean zure seme-alabek ikasten duten zentroan *hiru eleko plana* jarriko dute martxan, hau da, ikasgai batzuk euskaraz emango dituzte, beste batzuk ingelesez eta beste batzuk gaztelaniaz. Gurasoon artean aldeko eta kontrako iritzia dituzue.

Zeure iritzia plazaratzeko, herriko aldizkarian artikulu bat idaztea pentsatu duzu.

GAIA:

IKASKETAK HIRU HIZKUNTZATAN EGITEA: MESEDE ALA KALTE?

Hezkuntza-sistema eleanitzean, umeei dena delako ikasgaia ikasteaz gain, ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ere menperatu behar izango dute ikasgaia gainditzeko.



Hezkuntza eleanitzaren bidez, umeei hiru hizkuntzak modu naturalean barneratuko omen dituzte.

Hezkuntza-eragileen kritikak jaso zituen Jaurlearitzaren hiru eleko planak, euskarari kalte egingo omen ziolakoan.

- Hizkuntzak ikatea beharrezkoa al da? Zer deritzozu hizkuntzak ikasgai hutsak izan beharrean, bestelako ikasgaiak ikasteko tresnak izateari?
- Hezkuntza-eredu horrek umeen eleaniztasuna bermatuko duela uste duzu?
- Euskal Herrian bizi izanda, zein izan beharko litzateke hirugarren hizkuntza hori?
- Zein hezkuntza-eredu nahiko zenuke seme-alabentzat?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Arartekoaren 2013ko martxoaren 4ko ebazpena»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	A	5.	D	6.	C
7.	D	8.	D	9.	B
10.	C	11.	A	12.	C
13.	B	14.	D	15.	B
16.	A	17.	C	18.	D

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Bundesliga eta ekonomia»

19.	C	20.	B	21.	B
22.	A	23.	C	24.	A
25.	B	26.	C	27.	A

■ **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ **Irakurgaia:** «Hau duk euskal umorea!»

Hutsuneak	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	D	H	F	B	E	G	A

Soberakoa	C
-----------	---